



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko martxoaren 10ean

20 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).

B SAILA:

**Foru Lege Proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako. Aurkeztutako emendakinak (11. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **Foru Lege proiektua, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duena**

### **AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1999ko otsailaren 8ko 7 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko martxoaren 2an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **OSOKO EMENDAKINAK**

#### **1. EMENDAKINA**

##### **«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»**

##### **PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen berriazko erregimenari buruzko 1992ko urriaren 20ko 11/1992 Foru Legeak agindu duenetik sortu da lanbide-karrerari buruzko Foru Lege proiektua; izan ere, aipatu Foru Legeak bere 34. artikuluan finkatu du zer sistema erabiliko duen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bere langileen gorabidea bultzatzeko, eta, horretaz gain, lanbide-karrerari buruzko Foru Lege proiektua Parlamentura bidaltzea aurreikusi.

Lanbide-karrerarako proiektu hori esparru ezinobea izan zitekeen osasun sistema publikoari atxikitako langileen lanbide-garapena sustatu eta bultzatzeko sistema ezartzeko; izan ere, aintzindari baita Estatuan. Legegintzazko aurrekari honek alde berritzaileak eta aurreratzailak izanen zituela uste izatekoa zen, Nafarroako Administrazio Publikoak eta gizarte-eragileek Osasuneko Mahai Sektorialaren baitako negoziaketak baten

barruan, Foru Lege proiektuaren funtsezko alderdiei buruzko irizkidetasuna iristearren.

NOZeko osasun-langileen lanbide-karrerak eduki sakona duenez, Gobernuak ezin dio itzuri egin gizarte-eragileen mintzakide izateko erantzukizunari, ez eta Nafarroako Foru Administrazioak eta bere langile publikoek demokratikoki ezarri dituzten jarduteko bideei ere, Gobernuak eta sindikatu izenpetzaileek erdietsitako 1996-99 Hitzarmenaren baitan. Izan ere, Mahai Orokor Parekidea eta Mahai Sektoriala baitira lehentasuna duen negoziatze-esparrua, Foru Lege proiektua Parlamentura bidali aurretik.

Alabaina, 1997an eta 1998an zehar lanbide-karreraren proiektuaren inguruan izan diren negoziaketak eztabaidaz beteta egon dira, eta prentsan ere halaxe agertu da. Gobernuak ez da gauza izan negoziaketak 96-99 Hitzarmenak demokratikoki ezarri zituen bideetatik eramateko; aitzitik, akordio partzialak eta alde bikoak izenpetu ditu negoziaketa-mahaitik at, harik eta 1998ko irailean, Osasun Mahai Sektorialean, lanbide-karreraren proiektuari buruzko zirriborroaren gaineko akordioa lortu zuen arte.

Harrigarria bada ere, Mahai Sektorialean erdietsitako akordioa alde batera utzi eta Mahaia ez zuten berriro deitu. Haren ordeztu, UPNk eta NDFk legegintzaldiaren bukaeran hitzartutako Lanbide Karrerari buruzko Foru Lege proiektua plazaratu dute. Horiek horrela, gizarte-eragileek negoziaketa kolektiboaren bitartez lortu behar duten akordioari itzuri egiten zaio eta akordio hori funtsezkoa eta aurretik lortu beharrekoa da.

Gobernuak Foru Lege proiektua bidali du Parlamentura, eta hasiera-hasieratik ezabatu ditu gizarte-irizkidetasuna eta eztabaida politikoa; beraz, Foru Lege proiektu horrek akatsa du, sortze beretik, bi alderen hitzarmen politikoaren ondorio delako, eta prozesu demokratiko, sozial eta politiko oso bat izundu delako, 11/1992 Foru

Legeak eman agindua ez betetzeaz gain, alegia, NOZeko osasun-langileentzako lanbide-karrerarako proiektu zabala egitea. 1999ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen hogeita laugarren xedapen gehigarria ere ez da bete, hauxe baitzaien: "Hauxe bidaliko du Nafarroako Gobernuak Parlamentura, bi hilabeteko epean: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-fakultatiboan eta erizainen lanbide-karrerari buruzko Foru Lege proiektua."

Lanbide-karrerari buruzko Foru Lege proiektuak ez ditu erizainak kontuan hartu, ez eta gainerako langile fakultatiboak ere, hala nola albaitariak, biologoak, psikologo klinikoak, odontologoak, kimikariak, fisikariak eta beste goi mailako tituludun batzuk. Proiektuak hurrengo langile fakultatiboak besterik ez ditu aipatzen: Medikuntza eta Zirujari lizentziadunak edo Farmaziako lizentziadunak. Eta medikuntza lizentziatuen kasuan, gainera, garrantzizko zatia ahaztu du, alegia, aldi baterakoak -%43 egiten baitute-, eta kupo eta eskualdeko fakultatiboak, osasun sistema publikoan erantzukizuna izanik ere, lanbide-karreraren bitarteko pizgarri-sistematik at laga baitira.

Irizkidetasunik gabeko proiektu batek, medikuen sindikatuen arabera langile fakultatiboan %50 lanbide-karreratik at uzten duen proiektu batek, eta, gainera, NOZeko gainerako langileentzako lanbide-pizgarrien sistemarik ezartzen ez duen proiektu batek hauexek besterik ezin ditu erakar, bistan da: kritika negatiboan olde handi bat eta sindikatuen gehiengoaren eskaria, alegia, proiektua Osasun Mahai Sektorialera itzul dadila, Parlamentura berriz bidali aurretik.

Osasun langileak ordezkatzen dituzten sei sindikatu agertu ziren Osasun Batzordearen lan-bilerara batera, eta, Foru Lege proiektua dagoen baldintzetan aintzat ez hartzeko gorago aipatu diren arrazoiez gain, Gobernuak bidalitako testuaren edukiaz ari diren beste arrazoi batzuk ere aurkeztu zituzten. Hona: baremoa aplikatzeko orokorria eta argitasun falta, baremoa baita etorkizuneko foru lege hori garatzeko tresna nagusia; hauxe ere adierazi zuten, alegia, baremoa garatzeko erregelamendua ez adostea Gobernuari zuritako txeketa ematea bezala izanen litzatekeela.

Antzinatasunagatiko pizgarri ekonomikoak igotera baino ez du aintzat hartzen, inola ere jaitsiera; arriskurik gabeko sistema dakar horrek, eta ezin daiteke lanbide-pizgarritzat hartu. Horretaz denaz bezainbatean, osasun-laguntzaren kalitatea hobetzeko helburuen erdiestea barematu eta saritzearen aldeko apustua egin dute, hau da, fakultatiboan eta Foru Lege proiektutik at geratu diren gainerako osasun-langileen dedikazio kuantitatibo

eta kualitatiboa onestearen alde daude. Azken alde hori oso kezagarria da; izan ere, talde-lana apurtzea ekarriko luke, langileen estamentuen arteko erabateko desberdintasunaren ondorioz, eta zerbitzu batzuek jasaten duten presioaren ondorioz, Biltzarrari bidali zaion testuak ez baitu halakorik aurreikusi.

Horiek guztiak horrela, Nafarroako IU/EBkoek hurrengo balorazioa egiten dugu:

– Foru Lege proiektuak itzuri egin dio zerikusia duten gizarte-eragileekiko aurretiazko akordio beharrezkoari, eta Gobernuak ez dela gai ezarritako bide demokratikoetatik ibiltzeko erakusten du.

– Parlamentuz kanpoko hitzarmen edo itunak, bestalde, aurreko gizarte-prozesua saihestez gain, Parlamentuko tramitazioan indar politikoen artean izan behar den eztabaida eta irizkidetasun-ahalegina ere zapuztu du. Biltzarrak onetsi dituen lege-aginduak ere hautsi ditu.

– Aurretik itundutako testu honek albo batera utzi ditu gainerako osasun-estamentuak, mediku fakultatiboan erdia eta NOZeko beste fakultatibo batzuk; beraz, oso ezarpen-eremu murriztu du, eta lanbide-desegituratzea eragin lezake, desberdintasunarengatik eta pizgarri-faltagatik.

– Testua orokorregia da, norainokoa ere laburra du eta zehazgabea da funtsezko arlo batzuetan, hala nola pizgarri-sistema ezartzeko baremoren aplikazioan, lanbide-arriskurik gabekoa baita. Osasun-laguntzaren kalitate, ikerketa eta prestakuntza helburuak ez dira aintzat hartzen, eta antzinatasunari lehentasuna ematen dion sistemara itzultzen da.

– Parlamentuan entzun ahal izan genuenez, talde negoziaketetan aritu ziren gizarte-eragile gehienek oso balorazio negatiboa egin zuten Foru Lege proiektuaz.

Azaldutako arrazoiak direla-eta, uste dugu Foru Lege proiektuak ondorio kaltegarria izan dezakeela osasun sistema publikoko langileen artean, lanbide-karreraren pizgarri-sistematik at geratuko den profesionalen multzo handiarentzako eragin okerraz gain, osasun-laguntzaren kalitatearen kalterako ere izan daitekeelako. Beraz, hauxe proposatzen dugu:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

**2. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren fakultatiboentzako lanbide karrerako sistema arautzen duen Foru Lege proiektuak, desgaraian etortzeaz gain, ez du eduki egokirik.

UPNko Gobernuaren "larrialdi politiko"ko egocera bati erantzuten dio lege proiektuak; izan ere, Nafarroako Aurrekontuak kosta ahala kosta onestearren, NDFren adostasuna hitzartu baitzuen Nafarroako gizartearen gehiengoarentzako atzerakoiak diren aurrekontuen alde, zeren truke eta, besteak beste, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren osasun fakultatiboentzako eta erizaintzako lanbide-karreraren proiektu baten truke, zeina ez baitzatekeen argitara aterako Gobernuaren egonkor eta Nafarroako gizartearen interesak defendatzen tinko egon balitz. Beraz, aipatu Foru Lege proiektua kukutu egin zaie sindikatuari mahai sektorialetik, mahaiaren beraren akordioak ere ez dira bete eta.

Araugabekerien azken buruan, UPNko Gobernuak Foru Lege proiektu bat aurkeztu du 1999ko otsailean, eta proiektu horrek Nafarroako 1999ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea urratu du eta haren hogeita laugarren xedapen gehigarria (1999ko urtarrilaren 11an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean); beraz, litekeena da txosten juridikoren batek legezkotasun gabekotzat jotzea proiektu hori. Azpimarratu beharra dago aipatu xedapen hori aurrekontu-itunaren ondorio dela, alegia, aurrekontu-legea urratu duen lege proiektuaren sorburuan dagoen aurrekontu-itun beraren ondorio.

Ari garen lege proiektuaren ezarpen edo aplikazio eremua murrizta da: O-NOZi atxikitako langileak, Medikuntza edo Zirujiako lizentziadunak eta Farmaziako lizentziadunak. Beraz, kanpoan utzi dira beste fakultatibo batzuk, albaitariak, psikologoak, kimikariak, fisikariak, odontologoak eta beste goi-mailako tituludun batzuk, Legearen izenburuak bestela ulertzeko bide ematen badu ere. O-NOZko aldi baterako langileak ere ez dira aintzat hartu. O-NOZko langile guztien sustapena edo gora egitea ere ez da agertzen proiektuan, erizainak eta gainerako osasun-kolektiboak ere kanpo geratu dira, eta, azken finean, 11/1992 Foru Legearen 34. artikulua agindua hautsi da, "bere langileen gorabidea bultzatuko" dela ezarri baitu lege horrek.

Legeak baremoa ere ahaztu duenez, ezinezkoa da baloratzea, eta ezin da jakin haren helburuak –sustapena, pizgarriak, kudeatzeko tresna izatea– beteko ote diren; oreka-bermerik ere ez dago. O-NOZekiko atxikimendua ere ez da aintzat hartzen, arduraldi eksklusiboa esate baterako.

Sektoreko sindikatu guztiak agertu dira lege proiektuaren aurka –halaxe adierazi zuten Parlamentu honetan agertu zirenean–; orobat lanbide-elkargoak.

Horiek guztiak horrela, "Socialistas del Parlamento de Navarra" (SPN) Parlamentuko Taldeak hauxe uste du: Foru Lege proiektuaren printzipioak eta izpiritua, orobat edukia eta abagunea, ez dira egokiak. Ondorioz, Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea proposatzen du.

**ARTIKULUEI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****1. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikuluko 2. puntuan esaldi bat kentzeko emendakina:

"... kupoko eta eskualdeko fakultatiboak, eta ez..."

Zioak: Ordezkaritzarik handiena duten sindikatuak defendatzen dutenarekin bat egiteko.

**2. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua 1. puntuari zerbait eransteko emendakina.

Hauxe gehitu testuaren bukaeran: "... edo albaitaritzaren lizentziaduna, edo psikologia lizentziaduna, edo fisika lizentziaduna, edo biologia lizentziaduna, edo kimika lizentziaduna, edo odontologia lizentziaduna eta goi mailako tituludunak".

Zioak: Osasun fakultatibo guztiak (A2 kodea) sartzeko legearen aplikazio eremuan, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen II. eranskinean –Estamentuak eta espezialitateak– agertzen den bezala.

**3. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua 1. puntuari zerbait eransteko emendakina.

Hauxe gehitu testuaren bukaeran: eta erizaintzako osasun-langile diplomatuak.

Zioak: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko erizainei ere aplikatzea lanbide karrerari buruzko lege proiektua.

Nafarroako 1999rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea betetzea.

**4. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Lehenengo artikulua 1. puntuari zerbait eransteko emendakina.

Hauxe gehitu testuaren bukaeran: eta gainerako estamentuak

Zioak: Lanbide-karreraren hatsapenak berariaz aplikatzea O-NOZeko beste langile-talde batzuei.

**2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****5. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Bigarren artikulua aldatzeko emendakina.

Bigarren lerroaldean, "Lanbide karreraren maila horiek"en ondoren, "kontuan hartuko dira"ren ordean hauxe jarri: kontuan hartzen ahal dira...

Zioak: Arau-garapenaren derrigorrezko izaera kentzea.

**6. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zerbait eransteko emendakina.

Bigarren artikulua

Hauxe gehitu artikulua 1. puntuaren bukaeran: baita izendapen librekoak ere, Osasun Departamentuaren eta haren organismo autonomoen esparruaren baitan.

Zioak: Hala bada, lanbide-karreraren mailak lotu ahal izatea zerbitziburutzeta eta atalburutzetara iristeko aukerarekin, eta baita zuzendaritza eta zuzendariordetza medikuetarako irispidearekin.

**7. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zerbait eransteko emendakina.

Bigarren artikulua

Hirugarren lerroaldea erantsi

Lanbide-karreraren sistemak barrutiko sendagile espezialistak (BSE) eta oinarrizko osasun laguntzako medikuak errekonozitu egiten ditu, baldin eta arduraldi eskusiboa eta IV. maila badute, eta BSE aholkulari eta oinarrizko osasun laguntzako mediku aholkulari izendatuko ditu.

Zioak: Lanbide-jarduera aitortu eta saritzea, lanbideduden motibazio-itxaropena hobetzea, O-NOZekiko atxikimendu-maila ezberdinak kontuan hartzea.

**5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****8. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Bosgarren artikuluko 1. puntuaren a) letra aldatzeko emendakina.

Hauxe esaten du: "puntuazio osoaren %50..."

Aldiz, hau esan dezala: "puntuazio osoaren %40..."

Zioak: Antzinasunaren eta baremazioaren arteko harreman egokiagoa ezartzea.

**9. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

## FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Bosgarren artikuluko 1. puntuaren b) letra aldatzeko emendakina.

Hauxe esaten du: "puntuazio osoaren %50..."

Aldiz, hau esan dezala: "puntuazio osoaren %60..."

Zioak: Antzinatasunaren eta baremazioaren arteko harreman egokiagoa ezartzea.

**6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA****10. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

## FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Seigarren artikuluko 1. puntua aldatzeko emendakina. I, II, III, IV, V. mailen balorazioa (Egondako urte bakoitzeko) 5, 7, 8, 5 izanen dela dioenean, hauxe esan behar du:

I. mailan	4 puntu
II. mailan	6 puntu
III. mailan	7 puntu
IV. mailan	4 puntu

Baremoaren puntuazioari dagokionean, berriz, 5, 7, 8, 5 dioenean, hauxe esan behar du: 6, 8, 9, 6, hurrenez hurren. Gainerakoa berdin, bai V. mailari dagokionean, bai guztizko puntuazioari buruzkoan.

Zioak: Antzinatasunaren eta baremazioaren arteko harreman egokiagoa ezartzea.

**7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA****11. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina

7. artikulua. 4. puntua.

Hauxe kendu: Osasun Sistema nazionalaren kreditazio prozeduren arabera.

Zioak: Kreditazio sistemak ezarri gabe daude oraindik, Nafarroa baita etengabeko prestakuntza-ren batzordea sortu duen lehena; beraz, ebaluazio-batzordeek etorkizunean eginen duten baremo-garapenarekin lotuta egon beharko litzateke.

**8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINA****12. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina

8. artikulua. 2. puntua. a) letra

"oinarrizko" ren orde, hauxe jarri: "egokitasunaren adierazle"

Zioak: Lanbidedunen iritzia kontuan eta aintzat hartzea, benetan, O-NOZen dauden inguru guztietan malgutasun nahikoarekin aplikatu ahal izateko.

**9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****13. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» ETA  
«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

## PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

9. artikuluko b) letran, idazkera hau jarri:

b) Maila berean geratzea, ez baldin bada iristen artikuluan mailaz igotzeko finkatzen den puntuaziorik. Horretara, gero batean mailaz igotzeko baldintza bakarra izanen da osasun-laguntza, lanbide hobekuntza eta eguneratze jardueren gaineko ebaluazio irizpideak betetzea, Foru Lege honetako 7. artikulua arabera eskatuak.

Zioak: Testuaren hutsegitea zuzendu, eta 5.1.b. artikuluari egokitzea.

**14. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

## FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

9. artikuluari c) letra gehitzeko emendakina. Hona edukia:

c) Mailaz jaitea. Baremoak eskatzen duen puntuazioa justifikatzen duen gutxienekoa erdie-tsiko ez balitz helburuak betetzerakoan.

Zioak: Harreman pizgarria ez ezik, denboran zehar eusteko baliabideak ezarri.

**10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****15. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

## FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

10. artikulua aldatzeko emendakina. Esaten duenean: "bat sindikatuen ordezkariak proposatua eta beste hiruak"...

Haxe esan behar du: "...bi sindikatuen ordezkariak proposatua eta beste biak" (gainerakoa berdin).

Zioak: Sindikatu-ordezkaritza egokiagoa.

**16. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluari zerbait eransteko emendakina.

Haxe jarri: "arduraldi eksklusiboa duten", hurrengoaren aurretik: "fakultatiboan artetik".

Zioak: Lanbidedunen partehartzea bultzatzea jardueraren ebaluazioari buruzko erabakiak hartzeko garaian, halako moldez non modu egokian aitortuko diren lanbidedunen O-NOZekiko atxikimendu maila ezberdinak, fakultatibo bakoitzaren ahalegina, betetzea eta merezimendua saritzearen.

**XEDAPEN GEHIGARRIEI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****17. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zerbait eransteko emendakina

Lehen xedapen gehigarria. 1. puntua.

Haxe erantsi puntuaren bukaeran:

Aipatu kopuruak %25 gehituko dira O-NOZen zerbitzuko lanbidedun fakultatiboentzako, arduraldi eksklusiboa badute.

Zioak: Beste elementu batzuetan oinarritutako pizgarriak ezartzea, urriaren 20 11/1992 Foru Legearen 34. artikuluko d) idazatian dioen bezala.

**18. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina

Bigarren xedapen gehigarria.

Hurrengoia kendu, laugarren puntuko hirugarren erroaldetik:

– "1996ko urtarrilaren 1etik."

Haxe jarri:

– "1992ko urtarrilaren 1etik."

Hurrengoia kendu, bosgarren puntutik:

– "1995eko abenduaren 31ra arte."

Haxe jarri:

– "1991ko abenduaren 31ra arte."

Zioak: Aldi baterako zerbitzuen ebaluazioa egokitu ahal izatea aipatu urtean gertatu zen aklo-pamendua.

**19. EMENDAKINA****«UNION DEL PUEBLO NAVARRO» ETA  
«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

## PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina.

“4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin, **1992ko urtarrilaren 1etik**, aldi baterako kontratua duten langileak sartzeko eta izendatzeko Medikuntza eta Zirujiako edo Farmaziako lizentziatu titulua eskatu bazitzaien, erabat sartuko dira lanbide karrera sisteman, lanpostua jabetzan eskuratzen edo **eskuratuz izan** duten momentuan.

Lege honek indarra hartzen duenetik, aurreko erroaldean aipatzen diren langileak ebaluaziopean sartuko dira lanpostua jabetzan duten beren lankideen baldintza beretan, baldin eta langile horiek urteko lanaldiaren gutxienez %50 ebaluatu behar zaien lanpostu horretantxe eman badute.

**1992ko urtarrilaren 1etik** lege honek indarra hartu arte, aldi baterako emandako zerbitzuei, erregelamendu bidez ezarriko den prozeduraren arabera egiten zaie ebaluazioa.

Ebaluatu beharreko zerbitzu urteak aintzat hartuko dira mailan gora egiteko, aldi baterako kontratua duten langileak lanpostua jabetzan eskuratzen edo **eskuratuz** badute.

5. **1991ko abenduaren 31ra** arte aldi bateko kontratuarekin emandako zerbitzuak ez zaizkie aintzat hartuko lanbide karrerako kontuetarako, ez gaur egun lanpostua jabetzan dutenei, ez gero batean jabetza eskuratzen dutenei ere.”

Zioak: Letra beltz eta etzanean agertzen den testuari dagokio aldaketa, lanbide-karreraren aldi batekotasuna 1992ko urtarrilaren 1era arte atzeratzeko. 1996 eta 1999ren bitartean sartu direnei ere aldi batekotasuna zuzen baloratzeko balio du; orobat geroago sartzen direnei.

## 20. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO

#### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat eransteke emendakina. Hona:

Nafarroako Gobernuak zera landu eta bidaliko du Parlamentura sei hilabeteko epean: helburuak lortzen diharduten osasun-langileei lanbide-karreraren sistema aplikatzeari buruzko Foru Lege proiektua. Funtzio publikoko sindikatuekin negoziatuko da haren aurreproiektua.

Zioak: Lanbide-karrera benetan helburuak lortzeko izanen delako konpromisoa zehaztu nahi da, eta, ondorioz, beste langile batzuei ere ezarriko zaiela.

## 21. EMENDAKINA

### «UNION DEL PUEBLO NAVARRO» ETA «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

#### PARLAMENTUKO TALDEEK AURKEZTUA

Zerbait eransteke emendakina.

Hirugarren Xedapen Gehigarria erantsi:

“Lanbide-karreraren sistema aplikatuko zaie, Foru Lege honetako bigarren xedapen gehigarriko 2. idazatiaren arabera aplikatu ere, Administrazioan sartzeko lege honen aplikazio eremuan esandako titulazioen jabe izatea eskatu zaien osasun langileei, baldin eta Osasun Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari atxikita badaude eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari eragiten dioten plangintza-, ebaluazio- edo ikuskaritza-zereginetan badihardute”.

Zioak: Legeak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izanik Osasun Departamentuan zerbitzuan dihardutenentzako aurreikusitako lanbide-karrera. Ildo beretik, egoki eta zuzen da Osasun Departamentuan, funtzio publikoaren zereginetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzurako lanean dihardutenei ere lanbide-karrera egokitzea.

### BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 22. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen iragankorra aldatzeko emendakina.

Hauxe kendu: “langileak daukan kategoriaren arabera”tik, “moldatzea”raino.

Hauxe kendu: “fakultatibo bakoitza dagoen kategoriari dagokion”

“Honako urteak kreditatu behar dira”ren ondoren, hauxe erantsi: II. mailara igotzeko, 6 urte. III. mailara igotzeko, 12 urte. IV. mailara igotzeko, 18 urte. Eta V. mailara igotzeko, 24 urte.

Zioak: Lanbidedunei pizgarriak eta bultzagarriak ematea, eta barrutiko sendagile espezialisten (BSE) eta OOLTko medikuen taldeentzako bereizkeria kentzea, Nafarroako Osasunaren kalitate-mailetan egiten duten ahalegin eta dedikazioa onartuz aipatu fakultatiboak.



**23 EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko emendakina. Bigarren xedapen gehigarria.

Hurrengoaren orde: "zilegi izanen da hasieran esleitu baino goragoko maila batera aldatzea". Hauxe jarri: "hasieran esleitu baino goragoko maila batera aldatuko du O-NOZek".

Hauxe kendu: "fakultatiboak hala eskatzen badu"

Hauxe ere kendu: "kreditatu".

Zioak: Lanbidedunek administrazio modernoa eta eraginkorra ikus dezaten, ahaleginak egoki bideratu eta administrazio-izapideak kentzeko.

**AZKEN XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****24. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

## FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan lehenbizikoa kentzeko emendakina.

Zioak: Aurkeztu diren beste emendakin batzuekin bat egitearren.

**25. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapenetan bigarrenari zerbait erans-teko emendakina.

Hauxe gehitu, "Nafarroako Gobernuak"en ondoren: ", dagokien ebaluazio-batzordeek proposatuta,".

Zioak: Foru Lege proiektuak berak dioen bezala, zerikusia duten lanbidedunei beraiei ematea aintzindaritza lanbide-karreraren aplikazioan eta geroko garapenean.

**26. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zerbait eransteko emendakina.

Beste azken xedapen bat.

Hauxe bidaliko du Nafarroako Gobernuak Par-lamentura, Lege hau argitaratu eta hilabeteko epean: eraizaintzako osasun langile diplomatuen eta gainerako estamentuen lanbide-karrerari buruzko Foru Lege proiektua, aipatu lanbidedu-nen borondatezko karreraratzea errespetatuko duena.

Zioak: Nafarroako 1999ko Aurrekontuen ondo-ko Legea betetzea, eta erizaintzako lanbidedunen bazterkeria ekidite; izan ere, 1992tik zegoen izen-petua konpromisoa, O-NOZek 1992-1995erako izenpetu zuen hitzarmenaren 19. puntuan.

**ZIOEN AZALPENARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****27. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari zerbait eransteko emendaki-na.

Hauxe ere jarri seigarren lerroaldean, "zeina"ren ondoren:

"O-NOZekiko engaiatze-graduan,"

Zioak: O-NOZekin engaiatuen dauden lanbide-dunei aukera ematea beraien lanbide-asmoak betetzeko.

**28. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

## PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpena aldatzeko emendakina.

Azken lerroaldean, "Aipatu printzipioak"en ondoren, hauxe kendu:

"hala tokatzen bada".

Zioak: Arauari eraginkortasuna ematea, beste lanbide-estamentu batzuetan aplikatu ahal izateko.



---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako

### AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikulua ezarritakoa betez, eskubide sozialen gutun baterako Foru Lege proposamenari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proposamen hori 1998ko azaroaren f11ko 87 zk.ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1999ko otsailaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### 1. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 1. EMENDAKINA

##### «IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko lehen lerroaldearen ordez ondoko testua jartzeko emendakina:

“Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroan duten herritar guztiei ondoko eskubideak segurtatuko diena:

a) Bizitzaren oinarrizko beharrak betetzeko balioko duen oinarrizko errenta eskuratzea.

b) Langabeziaren prestazioak agortu dituzten edo oinarrizko errenta jasotzen ari diren iraupen luzeko langabetuek lan bat eskuratzeko eta enplegu publikoaren eskaintza bat jasotzeko eskubidea.

c) Promozio publikoko etxebizitza bat edo bizitzeko toki bat eskuratzeko eskubidea, halakorik ez duten eta dirusarrera nahikorik ez duten pertsonentzat.

d) Haur hezkuntza, derrigorrezko hezkuntza eta derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza doan jasotzeko eskubidea, eta dirusarrera eskasak

dituzten edo gizarteratze prozesuan dauden familietako ikasleei hezkuntza bitarteko osagarriak eskuratzeko eskubidea.

e) Egoitza Nafarroan duten pertsonentzat, osasun prestazioak beteta edukitzeko eskubidea, edozein dela ere haien egoera legearen aldetik.

f) Duintasun pertsonala eta bizi kalitatea zainduta eta bermatuta izateko eskubidea, adina, gaitasunen gutxitzea edo gaisotasun kronikoa direla eta menpekotasunen bat duten pertsonentzat.”

Zioak: Legearen esparrua zabaltzea Konstituzioak onartzen dituen eta egoera sozialaren ikuspegitik beharrezkoak diren beste eskubide batzuetara.

#### 2. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geldituko da:

Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko eremuan Eskubide Sozialen Gutuna aldarrikatzea, egoitza Nafarroan duten eta Nafarroan erroldatuta dauden (bi urteko egonaldia eta errola) herritar guztiei segurtatuko diena lan bat eta oinarrizko errenta eskuratzea, herritartasunak ematen dituen eskubideez bere osotasunean baliatzeko aukera izan dezaten.

Zioak: Edukia egokitzea gure Komunitateko gaurko aukera errealerara, Nafarroako gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean berriki onetsi diren proposamenei jarraituz.

**3. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua ordezteko emendakina:

“Legearen xedea. Lege honen xedea da” hitzen ordeztu, ondokoak jartzea proposatzen da:

“Lege honen xedea da”.

Zioak: Formaz egokitzea legeetako ohiko lexikora eta foru legeetako lexikora.

**4. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**FORU PARLAMENTARIO  
ANDREAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina:

“urte beteko egonaldia” hitzen ordeztu “hiru urteko egonaldia” hitzak jartzea.

Zioak: Errealistagoa eta nafar errealitatekin hurbilagoa dela dirudi.

**5. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

1. artikulua aldatzeko emendakina.

“Urte beteko egonaldia” hitzen ordeztu ondoko hitzak jartzea: “bi urteko egonaldia”.

Zioak: Bazterkeriaren aurka borrokatzeko plan onetsitakoari egokitzea.

**6. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

1. artikuluko bigarren lerroaldeko “desindustrializazio” hitzaren ordeztu “berrikuntza teknologiko” hitza jartzea.

Zioak: Idazkera egokitzea Nafarroan gertatzen ari denari.

**2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****7. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina.

2. artikuluko lehenbiziko lerroan ageri den “Lege” hitzaren ordeztu “Foru Lege” hitzak idaztea.

Zioak: Formaz egokitzea legeetako ohiko lexikora eta foru legeetako lexikora.

**8. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO**

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

2. artikuluko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina.

Lerroalde horren hasieran “Herritartasun eskubide unibertsalak berriro ezartzea...” esaten duen tokian “Herritartasun eskubide unibertsalak sendotzea...” jartzea. Hortik aurrera berdin.

Zioak: Idazkera egokitzea Nafarroan gertatzen ari denari.

**9. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko emendakina.

“Lanaldia banatzea lan bila dabiltzaneren artean” hitzen ordeztu ondoko testua jartzea proposatzen dugu: “Enplegu hitzarmen bat egitea lan bila dabiltzanentzat lanpostuak sortzea ahalbidetzeko”. Gainerakoa, berdin.

Zioak: Lanpostuak sortzeko helburua izanen lukeen Enplegu Hitzarmen batek konpromiso sozial zabala ekarriko luke, bai eta hitzarmena etengabe berraztertzeko, emaitzak ebaluatzeko eta behar diren aldaketak proposatzeko aukera ere.

**10. EMENDAKINA****«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

2. artikuluari lerroalde bat gehitzeko emendakina.

Azken lerroaldearen ondoren beste lerroalde bat gehitzea proposatzen da. Hona proposatzen den testua:

“Babes gutxien eta menpekotasun handiena duten gizarteko kideen zaintza eta tutoretza bereganatzeko eskubidea eta betebeharra; izan ere, hori nafar gizartearen erantzukizun partekatua delako.”

Zioak: 1. artikuluari aurkeztu diogun emendakinarekin bat etortzeko.

**3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO  
EMENDAKINAK****11. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikulua ordeztzeko emendakina.

Hona proposatzen den testua:

“Nafarroako Gobernuak negoziazio kolektiboaren bitartez sustatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren, toki entitateen eta haien menpeko erakunde autonomoen zerbitzuko langileen lan harremanak arautzea, ondokoan oinarrituta: asteko lanaldia hogeita hamabost ordura jaitea, jubilatzeko adina hirurogeita bost urtetara aurreratzea, eta aparteko orduak progresiboki kentzea, bai eta aldi baterako kontratazioen ordeztu kontratu egonkorrak egitea eta plantilak gehitzea, beharrezkoa denean”.

Zioak: Osoagoa da.

**12. EMENDAKINA****BEGOÑA ERRAZTI ESNAL  
FORU PARLAMENTARIO  
ANDREAK AURKEZTUA**

3. artikulua ordeztzeko emendakina. Honela geratuko litzateke:

“1. Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernurako eskumenekin bat (Foru Hobetzeari

buruzko Legearen 49.1.b artikulua), eta agente sozialekin ados jarririk, Nafarroako Administrazio Publikoko langileen lan harremanen arautegia helburu hauetan oinarrituko da:

Asteko lanaldia 35 ordura jaitea, gehienez ere.

Jubilatzeko adin aurreratua 60 urtetan izan dadila sustatzea, eta haiei dagozkien ordezkapen kontratuak egitea.

Aparteko orduak kentzea. Ezinbestez egin behar izatekotan, ordu libreekin konpentsatuko dira.

Aldi baterako edo behin-behineko kontratuen ordeztu kontratu egonkorrak egitea.

Langile guztientzat bateraezintasunen sistema bat ezartzea.

2. Aurreko puntuak aplikatzeko baldintzak negoziazio kolektiboaren bidez adostuko dira.”

Zioak: Emendakin honen bidez Administrazio-ko gehienezko lanaldia 35 ordutan jartzen da. Lanaldi gehienezkoan ezberdintasunak egite bi sektoreen artean, aldea sortaraziko luke Administrazio-ko eta sektore pribatuko langileen artean; kontua da gehienezko lanaldiaren aldarrikapena homogeneizatzea.

Artikulu honetan bildutako neurriak praktikan aplikatu aurretik, agente sozialekin ados jarri behar izatea sartu nahi izan dugu.

**13. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

3. artikuluan zenbait hitz kentzeko emendakina.

Ondoko esaldia kentzea proposatzen dugu: “Nafarroako Foru Komunitatearen autogobernurako eskumenekin bat (Foru Hobeagotzeari buruzko Legearen 49.1.b artikulua)”.

Zioak: Zioen azalpenean bilduta dago hori.

**14. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

3. artikulua aldatzeko emendakina. “Asteko lanaldia 32 ordura jaitea...” hitzetatik bukaeraraino. Ondoko idazkera proposatzen da: asteko lanaldia 35 ordura jaitea, jubilazioa 60 urtera

aurreratzeko borondatezkotasuna eskubide gisa aitortzea eta Administrazioan eta Nafarroako enpresa publikoetan aparteko ordu estrukturalak kentzea.

Zioak: Erakunde sindikalek berek hainbestetan azaldu dituzten helburuetan aurrera egiteko modua ematen duen idazkera eman nahi zaio.

#### 15. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

II. tituluko 3. artikulua aldatzeko emendakina:

“lanaldia 32 ordura jaitea” hitzen ordez “lanaldia 35 ordura jaitea” jartzea.

Zioak: Lanaldia gure komunitateko egoera posibilistago bati egokitzea.

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 16. EMENDAKINA

##### MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Ez dugu uste bidezkoa denik agente sozial eta ekonomikoei ezer eskatzea; izan ere sindikatuak izan baitira modu askotara lan horretan aritu direnak. Gainera, Foru Komunitateak ez du eskumenik arlo horretan.

#### 17. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluari zenbait hitz gehitzeko emendakina.

“Negoziazio kolektiboa” hitzen ondoren, “Nafarroako Gobernuak” hitzak gehitzea. Testuaren gainerakoa egokitu beharko da; beraz, “eskatuko zaie” hitzen ordez “eskatuko die” jarri beharko da.

Zioak: Nafarroako Gobernuak konprometitzea jarrera koherenteagoa izan dezan eskumenik ez duen eremuetan.

#### 5. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

#### 18. EMENDAKINA

##### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

5. artikulua kentzeko emendakina

Zioak: Artikulu horren edukiaren aplikazioa zaila da; aplikazio horrekin zerikusia duten alderdi asko alde aurretik aztertu behar dira.

#### 19. EMENDAKINA

##### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

III. titulua: Lanpostu banakatua. 5. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Administrazioari lanpostu batean aritze-ko oposizioa egin behar da; beraz, planteamendu hori ezin da aurrera eraman.

Enpresa pribatuaren kasuan (gure Komunitateak eskumenik ez baitu lan arloan), formula hori aplikatzeko pizgarriak agente sozialekin eta patronalarekin negoziatu beharko dira.

#### 20. EMENDAKINA

##### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL

FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

5. artikulua ordeztzeko emendakina. Honela geratuko da:

“Lanaldi osoa duen pertsona batek bere lanaldia zati batean gutxitu nahi izan eta zati horretarako beste pertsona bat kontratatzen bada, Nafarroako Gobernuak aukera hori sustatu egingen du.”

Zioak: Kontraturiko pertsonak aukera izan beharko du bere lanaldia zenbatean gutxitu nahi duen erabakitzeko. Hori dela eta, EAk ez du uste egokia denik lanaldiaren %50 bezalako tarte herzi bat jartzea.

Gainera, akordioa ez da izan lanaldia murriztu nahi duen pertsona kontratatuaren eta lanaldi hori osatuko duen langabetuaren artean; akordioa kontratazio sistematan oinarritu beharko da eta irizpide orokorrak errespetatu beharko ditu (aukeren berdintasuna eta abar).

## 6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 21. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Parlamentuak jada onetsita duen plan batean jaso da artikulua edukia.

### 22. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua kentzeko emendakina. Hona haren ordeztzatzen den testua:

“Eskubidearen definizioa. Egoitza gutxienez bi urtez Nafarroako Foru Komunitatean izan eta lan merkatutik kanpora dauden pertsonak eta behar diren dirusarrerak ez dituztenek eskubidea izanen dute oinarritzko errenta bat kobratzeko, eskubide osoko herritar gisa bizi ahal daitezen.”

Zioak: Egokiagoa da oinarritzko errentaren eginkizun eta izaera birbanatzailearekin, eta hobeki dagokio Bazterkeriaren aurka borrokatze-ko planean onetsitakoarekin.

### 23. EMENDAKINA

#### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Eskubidearen definizioa: Nafarroako Foru Komunitateko herritar guztiek eskubidea dute beren oinarritzko beharrak beteta izateko eta, ondorioz, bizimodu autonomo, duin eta kalitatezkoa izateko.

Horretarako oinarritzko errenta bat ezarriko da. Dirusarrerak horiek oinarritzko betebeharrak eta gizarteratze prozesutik ondorioztatutakoak betetzera zuzenduko dira.”

Zioak: Oinarritzko errentarako eskubidea soilik langabeziarekin lotzen badugu, alde batera utzita pertsona bakarreko etxeetan edo gizabanakoa parte deneko familia-unitateetatik jasotzen ari

diren zeharkako baliabideak, gerta daiteke ere behar ez duenaren diru-ahalmena handitzea. Horretara, ez genuke lortuko errentaren banaketa justua egitea. EAKook uste dugu beharrari eta baliabide ezari lotu behar zaiela oinarritzko errenta.

### 24. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko emendakina

Ondoko hitzak kentzea proposatzen da: “Nafarroako Foru Komunitateko autogobernuaren esku-menekin bat etorritik (Foru Hobetzeari buruzko Legearen 44.17 artikulua).”

Zioak: Zioen azalpenean agertzen da hori.

### 25. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

6. artikulua aldatzeko emendakina. “behar diren neurriak arautuko dira” hitzetatik hasi eta lerroaldearen bukaerara bitartekoa kendu eta ondokoa jartzea proposatzen da:

“...behar diren neurriak arautuko dira Nafarroako Foru Komunitateko familia-unitate guztiek, egitezkoek zein zuzenbidezkoek –haien kideek lan merkatutik kanpo badaude eta behar diren dirusarrerak ez badituzte– eskubidea izanen dute oinarritzko errenta bat kobratzeko, eskubide osoko herritar gisa bizi ahal daitezen.”

Zioak: Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatze-ko planean jada azaldu diren sindikatuetako helburuetan aurrera egitea bideratuko duen idazkera egin eta hori Foru Administrazioak bereganatzeko bidea eman nahi da.

## 7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 26. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua kentzeko emendakina. 6. artikuluarik buruzko emendakinean emandako arrazoi berdinentzat.

Zioak: Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean bilduta dago.

## 27. EMENDAKINA

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke idatzita:

“Onuradunak: gutxienez 3 urtez Nafarroako edozein udaletan erroldatuta egon eta parte diren elkarbizitza-unitateko ondare eta dirusarrerak aintzat hartuta, oinarrizko beharrei eta bergizarteratze prozesu baten ondoriozkoei aurre egiteko dirubaliabide nahikorik ez duten pertsonak.”

Zioak: Oinarrizko errentarako eskubidea soilik langabeziarekin lotzen badugu, alde batera utzita pertsona bakarreko etxeetan edo gizabanakoa parte deneko familia-unitateetatik jasotzen ari diren zeharkako baliabideak, gerta daiteke ere behar ez duenaren diru-ahalmena handitzea. Horretara, ez genuke lortuko errentaren banaketa justua egitea. EAkook uste dugu beharri eta baliabide ezari lotu behar zaiela oinarrizko errenta.

## 28. EMENDAKINA

### MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Onuradunak udaletan erroldatuta egon eta lan bila ari diren egitezko zein zuzenbidezko familia-unitate guztiak izanen dira; betiere, Nafarroako edozein udaletan gutxienez bi urtez erroldatuta behar dute.

Era berean, eskubide bera izanen dute ondoko egitezko edo zuzenbidezko familia-unitateek: Lanbidearteko Gutxieneko Soldataz behitiko prestazio edo laguntzak jasotzen dutenak, baldin eta familia-unitateak bi kide baino gehiago baditu, edo bi kide izanez gero LGSaren %90 jasotzen badute, edo %75, pertsona bakarreko familia-unitateen kasuan. Horretarako, Nafarroako Administrazio Publikoak alde hori ordainduko dio, artikulua honekin seinalatutakoa erdietsi arte.”

Zioak: Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean jada azaldu diren sindikatueta helburuetan aurrera egitea bideratuko duen idazkera egin eta hori Foru Administrazioak bereganatzeko bidea eman nahi da.

## 29. EMENDAKINA

### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua ordeztzeko emendakina. Hona proposatzen den testua.

“Onuradunak. Bizi-beharrak betetzeko dirubaliabide aski ez dituzten pertsonak izanen dira oinarrizko errentaren onduradunak.”

Zioak: Aurreko emendakinekin koherentea izatea.

## 30. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko emendakina

Artikuluko bigarren lerroaldea ordeztzea. Haren ordeztze honelako bat jartzea proposatzen dugu:

“1999ko ekitaldiko oinarrizko errenta ez da izanen Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %75 baino gutxiago, eta %5 igoko da aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, harik eta 2005 urteko ekitaldian LGSaren %100era iritsi arte. Hartara, 2005 urtetik aurrera LGSaz behitiko dirusarrerak edo prestazioak dituzten pertsona guztiei Nafarroako Administrazio Publikoak oinarrizko errenta bat edo/eta LGSarekin berdintzeko gutxieneko errentara iristeko falta zaiena bermatuko die.”

Zioak: Nafarroako gizarte ongizate maila Estatu gainerakoaz goiti dago; beraz, arrazoizkoa dirudi epe ertainean LGSaren pareko gutxieneko dirusarreraren bermea erdiestea, izan ere prezioen maila ere gainerako autonomo erkidegoetakoaz gorakoa delako.

## 8. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

## 31. EMENDAKINA

### BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko emendakina. Hona testua:

“Zenbatekoa: zenbait erreferentzia-baremoren bidez arautuko da; kasuan kasuko banakako ara-



zoak eta familia-arazoak aintzat hartuta, baremo horiek, alde batetik, oinarrizko beharrak betetzeko gutxieneko baliabideak bermatuko dituzte; bestetik, herritar guztien gizarteratzeko eta laneratzeko eskubidea ere bermatuko dituzte.”

Zioak: Oinarrizko errentarako eskubidea soilik langabeziarekin lotzen badugu, alde batera utzita pertsona bakarreko etxeetan edo gizabanakoa parte deneko familia-unitateetatik jasotzen ari diren zeharkako baliabideak, gerta daiteke ere behar ez duenaren diru-ahalmena handitzea. Horretara, ez genuke lortuko errentaren banaketa justua egitea. EAKook uste dugu beharri eta baliabide ezari lotu behar zaiela oinarrizko errenta.

### 32. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Zenbatekoa LGSa adinakoa izanen da egitezko edo zuzenbidezko familia-unitateentzat; bi kide izanez gero LGSaren %90 jasoko dute; %75 pertsona bakarreko familia-unitateen kasuan.

Eguneratzea urtero eginen da Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen bitartez.”

Zioak: Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean jada azaldu diren sindikatueta helburuetan aurrera egitea bideratuko duen idazkera egin eta hori Foru Administrazioak bereganatzeko bidea eman nahi da.

### 33. EMENDAKINA

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua ordeztzeko emendakina. Hona proposatzen den testua.

“Zenbatekoa. Oinarrizko errentaren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %75ko dirusarreraren adinekoa izanen da pertsona bakarrentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %15 baino gehiago bigarren pertsonarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %10 baino gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia batek ezin izanen du Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren %125 baino gehiago jaso oinarrizko errenta gisa.”

Zioak: Zenbatekoak Bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean berriki onartutakora egokitzea.

### 34. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

8. artikulua aldatzeko emendakina. Hona testua:

IV. titulua. Oinarrizko errenta.

8. artikulua. Zenbatekoa. LGSaren %75 izanen da.

Zioak: Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean onetsitakoarekin koherentea izateko.

#### 9. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 35. EMENDAKINA

#### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua kentzeko emendakina.

9. artikulua kentzea Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean jada jasota dagoelako.

Zioak: Lege honetako aurreko artikulua batzuk kentzeko planteamenduarekin koherentea izateko.

### 36. EMENDAKINA

#### MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

9. artikulua aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Sei hileko iraupena –luzagarria– izanen du; jasotzen duena lan merkatuan sartzen denean eten eginen da.

Lanera sartzea soilik aldi baterako bada, Administrazioak aitortuta dion LGSaren mugaraino

jasotzen den zenbatekoa osatzeko eskubidea mantenduko da.

Zioak: Gizarte Bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean jada azaldu diren sindikatuetakoa helburuetan aurrera egitea bideratuko duen idazkera egin eta hori Foru Administrazioak bereganatzeko bidea eman nahi da.

### 37. EMENDAKINA

#### **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA**

9. artikulua aldatzeko emendakina

“Iraupena: mugagabea izanen da eta eten eginen da oinarritzko beharren betetzerik ez izatea sortarazi duten jatorritzko arrazoiei irtenbidea ematen zaienetik, edo bestela oinarritzko errentaren funtsezko helburua lortu delako, gizarteratzea, alegia.”

Zioak: Erredakzio zuzenagoa egitea, aurkeztutako emendakinekin bat egiteko.

### 38. EMENDAKINA

#### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

9. artikulua ordeztzeko emendakina. Hona proposamena:

“Iraupena. Oinarritzko errenta hamabi hilabeteko epe baterako emanen da, eta beste hamabi hilabetetarako berritu ahal izanen da, egoera aldatu ez bada, egonkortasun ekonomiko iraunkorra behar duten gizarteratze prozesuen eboluzioa ahalbidetzeko”.

Zioak: Bazterkeriaren aurka borrokatzeko planean onetsitakoari egokitzea.

### 39. EMENDAKINA

#### **«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

9. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

9. artikulua bis. “Nafarroako Gobernuak oinarritzko errenta jasotzeko egindako eskari guztiak kontrolatzeko eta kudeatzeko behar diren tresnak ezarriko ditu, egoera pertsonalaren, ekonomikoaren eta familiarraren egoera irizpide hartuta, bana-

kako oinarritzko errenta baten beharra norainokoa den zehazteko”.

Zioak: Oinarritzko errenta eskatzen duten pertsonen berdintasuna bermatzeko; izan ere, gutxieneko dirusarrera horiek bizitzeko behar dituztenen bizi-beharrak bete behar baitira.

### 10. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

### 40. EMENDAKINA

#### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

10. artikulua ordeztzeko emendakina. “Onuradunak” hitzaren ordezkari ondoko hitzak jartzea proposatzen da: “Pertsona onuradunak”.

Zioak: Forma egokitzea ohiko lexikora.

### 41. EMENDAKINA

#### **«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

IV. tituluko 10. artikulua ondoen beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

“11. artikulua. Nafarroako Gobernuak bermatu du dirusarrera gutxi duten edo gizarteratze prozesuan diren familietako ikasleek hezkuntza doan izanen dutela unibertsitatez besteko maila guztietan, zerbitzu osagarrietarako, eskola materialerako eta kirol materialerako bekak eta laguntzak emanez. Halaber, unibertsitateko prestakuntzaren doakotasuna bermatuko da, baldin eta probetxamendu akademikoa demostratzen bada.”

Zioak: Aurkeztutako beste emendakin batzuen edukiarekin bat etortzeko.

### 42. EMENDAKINA

#### **«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

IV. titulua bukaeran, 11. artikulua berriaren ondoen, beste artikulua bat gehitzeko emendakina.

“12. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoak bermatu egiten du osasun laguntza publikoa jasotzeko eskubidea, bai oinarritzko osasun lagun-

tza, bai laguntza espezializatua eta gainerakoak ere, pertsona guztientzat, aintzat hartu gabe zer egoera legala duten edo zenbat denbora eman duten Foru Komunitatean.”

Zioak: Hezkuntza eta osasuna eskubide unibertsalak dira, Konstituzioak bermatutakoak, eta horiek behar dituzten herritar guztientzat bermatu behar dira, aintzat hartu gabe zer egoera legala duten edo zenbat denbora eman duten Nafarroan.

#### **XEDAPENEI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK**

#### **43. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Erregelamenduzko xedapena ordeztuko emendakina.

“Erregelamenduzko xedapena” esan zaionaren izena ordeztea proposatzen da. Hona harentzat proposatzen den izena:

“Xedapen gehigarria”

Zioak: Formaz egokitzea legeetako ohiko lexikora eta foru legeetako lexikora.

#### **44. EMENDAKINA**

##### **«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren xedapen gehigarria gehitzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Nafarroako Gobernuak hiru hilean behin Foru Lege honen garapenaren eta betetzearen berri eman beharko dio Nafarroako Parlamentuari, bai eta ukituriko administrazioek foru legea dela-eta burutzen dituzten negoziazioen eta lortzen dituzten akordioen berri ere.”

Zioak: Beste emendakin batzuekin bat etortzeko.

#### **45. EMENDAKINA**

##### **MARTIN LANDA MARCO**

##### FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA

Azken xedapenari zenbait hitz gehitzeko emendakina. “argitaratzen den egunetik” hitzen ondoren ondokoa eranstea proposatzen da: “eta

bera aplikatzeko behar diren neurriak eta xedapenak arauz garatzeko ezarritako epea bukatzen denetik”.

Zioak: Haren aplikazio zuzena ahalbidetzeko baldintzak ezarri.

#### **46. EMENDAKINA**

##### **BEGOÑA ERRAZTI ESNAL**

##### FORU PARLAMENTARIO ANDREAK AURKEZTUA

Xedapen iragankor bat gehitzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Lanaldia gutxitzeko, jubilatzeke adina aurreratzeko eta baldintza eskaseko lan kontratu mota guztiak kentzeko neurriak, Gutun Sozial honetan Nafarroako administrazio publikoek kontratatutako langile guztientzat aldarrikatutakoak, legez ezarriko dira sektore pribaturako ere, enpleguaren eta gizarte segurantzaren alorreko eskumenak eskuratzeko direnetik eta lan legediaren alorreko eskumenak (partekatuak) eskuratzeko direnetik. Horretarako, Nafarroako Gobernuak behar diren urratsak emanen ditu Estatuko Gobenuarengandik transferentzia horiek jasotzeko.”

Zioak: Baldintza berdinak ezarri nahi baditugu sektore pribatuko eta sektore publikoko langileentzat, sektore horien artean alderik izan ez dadin, beharrezkoa da neurri horien berdinak legez ezarzea sektore pribatuko langileentzat ere.

Horretarako, beharrezkoa da Estatuko Gobernuarengandik enplegu eta gizarte segurantzaren alorreko transferentziak eskuratzeko.

#### **47. EMENDAKINA**

##### **«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

##### PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Erregelamenduzko xedapena aldatzeko emendakina.

“Hiru hilabeteren buruan” esaten duen tokian “bederatzi hilabeteren buruan” esan behar du.

Zioak: Parlamentuko legegintzaldi honetako iraupena aintzat hartuta, ezinezkoa izanen da hori burutzea adierazten diren hiru hilabete horien buruan.

**48. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Xedapen indargabetzailea ordeztuko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Indarrrik gabe gelditzen dira Foru Lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo behegoko xedapen guztiak.”

Zioak: Formaz egokitzea legeetako ohiko lexikora eta foru legeetako lexikora.

**ZIOEN AZALPENARI  
AURKEZTURIKO EMENDAKINAK****49. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina. Hartan langabeziari buruz aipatzen diren datuen ordezkari 1998ko abenduaren 31n argitaraturiko datu ofizialak jartzea proposatzen da.

Zioak: Zehaztasun handiagoz ematea proposamenean ezarritako datuak. Egun jakin bateko datu zehatzak eman nahi dira.

**50. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARIO JAUNAK AURKEZTUA**

Zioen azalpeneko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina. Hona proposatzen den testua:

“Bestalde, ikus daiteke hazkuntza ekonomikoaren zikloek ez dutela balio izan enplegu egonkor nahikoa sortzeko, teknologia berriek lanpostuak eliminatzen baitituzte, oro har prestakuntza gutxi-koak; horrek kontrajarri egiten ditu teknologia berrien bidez laneko denbora aurrezte eta erabiltzen ziren teknologia atzeratuagoak...”

Hortik aurrera, berdin.

Zioak: Idazkera egokitzea Nafarroan gertatzen ari denari.

**51. EMENDAKINA****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA**

Zioen azalpenean beste lerroalde bat gehitzeko emendakina. Azken lerroaldea eta gero ondoko testua gehitzea proposatzen da:

“Hala eta guztiz ere, Foru Lege proposamen hau bat dator Nafarroako Foru Komunitateak bere autogobernurako dituen eskumenekin; eskumen horiek Foru Hobekuntzari buruzko legearen 49.1.b eta 44.17 artikuluetan aipatzen dira, hain zuzen ere”.

Zioak: Zioen azalpenean behar dute Foru Hobekuntzaren artikuluen aipamenak.

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b>  Urte bat ..... 6.000 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 140 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 175 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--